Bergarako Udala

**Larrialdietarako Udal Laguntzen araudia aldatu baino lehen, aurretiko kontsulta publikoa egiteko iragarkia**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

*"1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*

*a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*

*b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*

*c) Arauaren helburuak.*

*d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak."*

Bergarako Udalaren asmoa da udalerriko larrialdietarako udal laguntzak jasotzeko erroldatze-baldintzak aldatzea.

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du gizarte larrialdiko udal laguntzen aldaketa onartu baino lehen, horri buruzko aurretiko kontsulta publiko bat egitea.

Horrenbestez, egoki irizten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteek parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz 2020ko urtarrilaren 29tik otsailaren 18ra arte, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: idazkaritza@bergara.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuta (San Martin Agirre plaza 1).

## EKIMEN HONEN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Bergarako Udalak larrialdietarako udal laguntzak arautzeko eskumena du eta, horrenbestez, udalerriko larrialdietarako udal laguntzak arautzeko araudia onartu zuen (Udalbatzak 2013ko apirilaren 29an onartua, eta GAOn 2013ko uztailaren 2an argitaratua).

Sei urte eta erdi iragan ondoren, Gizarte Zerbitzuetatik antzematen ari da larrialdietarako udal laguntzak jasotzeko erroldatze-baldintzek ez dutela zentzurik gaur eguneko egoeran, non Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko dauden laguntzak jaso ahal izateko araudien baldintzak berdinak diren eta ondorioz baldintzen diferentziak toki batean edo beste batean laguntza jasotzeko erraztasunak ematen dituen.

Bestalde, nahiz eta Udalak nahiko baliabide ekonomiko jarri gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharra duten herritarrei laguntzeko, hainbat kasutan laguntza hauek jaso ezinda geratzen dira hainbat herritar erroldatze-baldintza betetzen ez dutelako.

Horrexegatik, gai hau sakon aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetatik uste da larrialdietarako udal laguntzen erroldatze-baldintzak aldatu egin behar direla eta gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko dauden berdinak jarri, hau da, Bergaran erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta eskabidea aurkeztu baino gutxienez sei hilabete lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizi izaten egon izana.

**ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA**

Gizarte-bazterkeriaren arrisku-egoeran dauden ahalik eta herritar gehienei laguntza eskaintzea da.

**ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HELBURUAK**

Helburua da laguntza jaso ahal izateko erroldatze-baldintzak Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritako gizarte-larrialdietarako laguntzen berdinak izatea, eta gizarte-bazterkeriaren arrisku-egoeran dauden ahalik eta herritar gehienei laguntza eskaintzea.

**EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ-ERREGULATZAILEAK**

Ez da aurreikusi bestelako aukera erregulatzailerik.

**Argitaratze-data: 2020/01/28**

Bergarako Udala

**Anuncio para llevar a cabo la consulta pública previa a la modificación de la ordenanza reguladora de las ayudas de emergencia municipales**

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas— ha implicado novedades a la hora de redactar leyes y reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados.

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas—, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

*"1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

*a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*

*b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*

*c) Los objetivos de la norma.*

*d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias."*

La intención del Ayuntamiento de Bergara es la siguiente: modificar los requisitos de empadronamiento para acceder a las ayudas municipales de emergencia del municipio.

Con el objetivo de cumplir el procedimiento dispuesto en la Ley 39/2015, el ayuntamiento ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa antes de la aprobación de la modificación de las ayudas municipales de emergencia social.

Por tanto, la ciudadanía, organismos o asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones desde el 29 de enero hasta el 18 de febrero de 2020, por cualquiera de estas dos vías:

- Mediante correo electrónico enviado al buzón idazkaritza@bergara.eus
- Presentando sus sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martin Agirre 1).

**PROBLEMAS QUE SE QUIEREN SOLVENTAR MEDIANTE ESTA INICIATIVA**

El Ayuntamiento de Bergara ostenta la competencia para la regulación de las ayudas municipales de emergencia y, en virtud de ello, el Pleno Municipal aprobó la Ordenanza reguladora de las Ayudas de Emergencia Municipales (aprobada el 29 de abril de 2013 y publicada en el BOG el 2 de julio de 2013).

Una vez transcurridos seis años y medio, desde Servicios Sociales se está detectando que en la situación actual no tienen sentido los requisitos de empadronamiento que permiten percibir las ayudas de emergencia municipales, ya que en las normativas de las ayudas existentes en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social, las condiciones para acceder a dichas ayudas son las mismas y, en consecuencia, la diferencia de requisitos en un lugar o en otro no puede suponer facilidades respecto a la percepción de la ayuda.

Por otro lado, aunque el ayuntamiento destina suficientes recursos económicos para ayudar a personas de la ciudadanía que lo precisan para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social, en ciertos casos algunas personas se quedan sin poder acceder a las ayudas por no cumplir el requisito del empadronamiento.

Por ello, tras un análisis exhaustivo del tema, desde Servicios Sociales se considera que se han de modificar los requisitos de empadronamiento de las ayudas de emergencia municipales y que se han de establecer los mismos que son requeridos para percibir las ayudas de emergencia social; es decir, que la persona debe estar empadronada en Bergara, con residencia efectiva en la localidad, y que como mínimo en los seis meses anteriores a la presentación de la solicitud debe haber residido efectivamente en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma Vasca.

## NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA

Se trata de prestar ayuda al mayor número posible de personas ciudadanas que se encuentren en situación de riesgo de exclusión social.

## OBJETIVOS DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA

El objetivo es que los requisitos de empadronamiento para percibir la ayuda sean los mismos que los de las ayudas de emergencia social establecidas por la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

## OTRAS OPCIONES REGULADORAS Y NO REGULADORAS QUE PUEDAN EXISTIR

No se prevé ninguna otra opción reguladora.

**Fecha de publicación: 28/01/2020**